

# elkarberri 82

# EFEOren Urteko Ospakizunera

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

**2024ko uztaila - abendua / Doako alea**

Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

# IV Jornadas Nacionales y II Jornadas Iberoamericanas de Fisioterapia en Salud Mental

MAIATZA 16 MAYO

Donostia - San Sebastián

Aldez Aurreko Programa / Programa Preliminar

08:30 – 09:00 / RECOGIDA DE MATERIAL E INAUGURACIÓN

09:00 – 10:00 / MESA 1
PASADO, PRESENTE Y FUTURO DE LA FISIOTERAPIA EN SALUD MENTAL EN ESPAÑA
Miguel Muñoz-Cruzado y Barba, Cristina Bravo Navarro, Daniel Catalán Matamoros, Asier Arrizabalaga Otaegui

10:00 – 11:00 / MESA 2
DOLOR Y SALUD MENTAL
María Madariaga
Oscar Rodriguez Nogueira

11:00 – 11:30 / COFFEE BREAK

11:30 – 13:00 / TALLER 1
BBAT
Juga Apodaca

13:00 – 14:00 / TALLER 2
EJERCICIO TERAPEÚTICO EN SALUD MENTAL
Daniel Catalán Matamoros

14:00 – 15:00 / LUNCH

15:00 – 16:30 / MESA 3
FISIOTERAPIA EN SALUD MENTAL Y DOLOR
Cristina Bravo, Elisa Galvez, Janette Canales, Luisa Pedro

16:30 – 17:30 / TALLER 3
FISIOTERAPIA Y DOLOR EN PERSONA CON UN TRASTORNO MENTAL
Iván Mélida

18:00 – 19:30 / MESA 4
PASADO, PRESENTE Y FUTURO DE LA FISIOTERAPIA EN SALUD MENTAL EN IBEROAMÉRICA
Moderador: Daniel Catalán Matamoros
Participantes: Mónica Herrera (Ecuador), Denis Montoya (Costa Rica), Paulina Cedas (Chile), Virginia Anghilante (Argentina), Jéssica Béda (Brasil), Lizbeth Rodríguez (Mexico), Geovana Landeo Acosta (Perú), Ellen Anderson (USA), Bárbara Mishelle González (Guatemala)

18:45 – 19:00 / CLAUSURA

Informazio gehiago
Más información

Organizadores / Antolatzaileak
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
AEF
AEF-SM





Edorta Ansoleaga
*EFEO-ko batzordekidea*


editoriala

## Epai historikoa

2021eko azaroaren 3an, Auzitegi Nagusiak 1310 zenbakiko epaia argitaratu zuen. Epai hori historikotzat jo daiteke; izan ere, osasun-zerbitzuak eskatzen dituzten herritarrak babesteko maila bat gehiago ezartzen du, eta, aldi berean, osasun-arloan, eta zehazki fisioterapiaren esparruan, hamarkadetan zehar egon den intrusismoari amaiera eman diezaioke. Epai hori bereziki garrantzitsua da zuekin partekatu nahi ditudan arrazoi hauengatik:

Lehenik eta behin, interpretazio-ildo berean ematen den bigarren epaia da (Auzitegi Nagusiaren apirilaren 7ko 1753/2011 epaiaren ostean) eta horrek jurisprudentzia sortzen du. 2021eko epai garrantzitsua doktrina bateratu eta, batez ere, etorkizunean irizpideak ezartzeko eman zuen Auzitegi Nagusiak. Horrek esan nahi du, aurrerantzean, administrazioek adierazten zaien moduan jokatu behar dutela, hau da, legea behar ez bezala interpretatzeari utzi behar diotela, horixe egiten ari baitziren hamarkadetan zehar.

Bigarrenik, berariaz ezartzen du, orain arte ez bezala, “parasanitario” eufemismoa ez dela onargarria, intrusismorako bidea eman baitu, besteak beste, osteopatian, kiropraxian, kiromasajean bai eta beste jardun batzuetan ere: akupunturan eta medikuntza osagarrietan, alternatiboetan, ez-konbentzionaletan edo tradizionaletan. “*Osteopatia, bai eta kiropraxia eta kiromasajea ere, fisioterapia espezializatuaren metodo eta teknikak dira*”, baieztatzen du Auzitegi Nagusiak. Horrek ez dio bide ematen administrazioetako arduradunek egin duten interpretazio bidegabeari.

Bestalde, argi eta garbi geratzen da horrelako terapiak eskaintzen dituzten zentroak osasun-zentroak direla eta halakotzat jo behar direla: baimena duten osasun-zentroak; izan ere, helburu terapeutiko zalantzarik gabea dute, gaixotasunak edo minak tratatzeko sendabideak aplikatzen baitituzte. “*Alde batera utzita gogoeta ekonomikoak, fiskalak edo bestelakoak, ikuspuntu materialaren arabera esan daiteke sintoma edo min jakin batzuen prebentzioko tratamendua, sendatzailea edo aringarria ematea xede duen jarduera bat materialki sanitariotzat hartu behar dela, nahiz eta formalki parasanitario gisa kalifikatuta egon. Diogun bezala, hori da administrazioak erabili duen eta Auzitegi Nagusiak bermatzen duen irizpidea*”.

Hortaz, osteopatia, kiropraxia, kiromasajea eta antzeko teknikak iragartzen edo eskaintzen dituen baina osasun-baimenik ez duen edozein zentrok jarduera eteteko eta zentroa ixteko agindua

jaso beharko luke. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzako Osasun arloko Publizitatea Kontrolatzeko Batzordearen arabera, zentro “parasanitario” horietakoren batek terapia horietako (edo beste batzuetako) baten publizitatea xede terapeutikoarekin egiteko baimena eskatzen duen bakoitzean, Batzordeak osasun-zentro bat dela egiaztatzen duen irekiera-dokumentazioa eskatu beharko luke. Baimen hori gabe ezingo luke ez publizitaterik egin, ez jarduera gauzatu.

Gainera, Auzitegi Nagusiaren 2021eko 1310 epaiaren beste alderdi garrantzitsu bat azpimarratu nahi nuke: ontzat ematen du Murtziako Eskualdearen osasun-administrazioaren interpretazioa; izan ere, nahitaezko osasun-baimena izan gabe osteopatia-, kiropraxia- eta kiromasaje-zerbitzuak eskaintzen zituen eta intrusismoagatik akusatu zuten zentro bat ikuskatu ondoren, zentro hori ixteko eskatu zuten, herritarrak babesteko neurri gisa. Auzitegi Nagusiak honako hau onartzen du: “...*bisitaldian ez da antzematen osasun-jarduerarik; baina egiaztatzen da osteopatia-, kiropraxia- eta kiromasaje-jarduerak gauzatu eta horien publizitatea egiten dela*”. Hau da, nahiz eta ikuskapena egiten den unean ez ziren inolako osasun-jarduera arrotzik egiten ari, aztarnak (zentroak egiten zuen publizitateak edo zentroak zituen bitartekoak) nahikoak dira osasun-jarduera osoa etenarazteko eta zentroa ixteko eskatzeko. Gure administrazioek nahiago dute legearen interpretazio horri entzungor egin.

Aipatzekoa da Auzitegi Nagusiaren epaiaren xedea pazientearen/erabiltzailearen segurtasuna bermatzea dela: “*zentro horretan ematen diren zerbitzuetan gutxieneko higiene-, segurtasun- eta kalitate-baldintzak bermatzen dira; izan ere, berriro diogu, bere jarduera ezin da osasunerako eskubidetik bereizi, nahiz eta haren izaera parasanitarioa aipatzen den”. Halaber, bereziki aipatzen du “... osasun-langileen zaintzaren eta kontrolaren garrantzia, osasun-zentrotzat hartzen diren instalazioetan;...*”. Alderdi hori erabakigarria da, eta EFEOk bereziki azpimarratu du zenbait urtetan erakunde sanitarioen aurrean. Osasun-arloko intrusismoak profesionalei ez ezik, herritarrek zerbitzu bat higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan eta ezagutza teknikoan oinarrituta jasotzeko duten eskubideari ere eragiten dio. Intrusismoaren aurka ez borrokatzea herritarrak arriskuan jartzea da; ez dago besterik.

Gure lanbideari zuzenean eragiten ez badio ere, adierazi behar da Auzitegi Nagusiaren 1310 epaiak berariaz aipatzen dituela akupuntura, medikuntza naturala edo homeopatia. "*U.101 Terapia ez-konbentzionalak: unitate asistentziala, zeinetan mediku bat arduratzen den gaixotasunen tratamenduak egiteaz medikuntza naturistaren bidez, sendagai homeopatikoen bidez, orratzen bidezko estimulazio periferikoko tekniken bidez edo eraginkortasuna eta segurtasuna frogatzen duten beste teknika batzuen bidez*". Hau da, naturopatia- edo akupuntura-zentro eta -zerbitzuak osasun-arloan sartzen dira, eta, kasu horretan, tratamendu horietaz arduratuko den mediku bat behar da.

Horiek guztiak aurkeztuta, zeuen buruari galdetuko diozue zenbat zentro arrotz itxi diren epai garrantzitsu hori argitaratu zenetik edo zenbat herritar berezi diren beren osasuna arriskuan jartzen duten iruzurgileen eskuetatik. Auzitegi Nagusiaren epaiaren gakoa da nahitaezko osasun-baimenik izan gabe horrelako tratamenduak xede terapeutikoarekin eskaintzen dituzten zentro guztiek jarduera eteteko eta zentroa ixteko agindua jaso beharko luketela. Baina, epai historiko hori duela hiru urte baino gehiago argitaratu bazen ere, errealitatea oso bestelakoa da.

Kontua da osasun-arloko administrazioak beste alde batera begira eta legea urratzen jarraitzen duela. Zenbakiek ez dute engainatzen: Euskadin gaur egun 500 zentro arrotz baino gehiago antzeman diren arren, erakunde horrek ez du zentro bakar bat ere itxi. Denek jarraitzen dute legez kanpoko jarduera inolako arazorik gabe gauzatzen administrazio publikoen laguntzari esker, ez baitu bere jarduteko betebeharra betetzen. Hamarkadetan zehar, erakunde horiek ahalbidetu egin dute osasun-arloko intrusismoak hazkunde esponentziala izatea, eta, hala, arriskuan jartzea Euskadiko herritarren osasuna.

“Balentria” hori gutxi balitz, eta aztergai dugun epaia argitaratu ondoren, legea urratzen jarraitzen dute, baina, kasu honetan, kontzienteki eta nahita; izan ere, Auzitegi Nagusiak argi eta garbi uzten du zentro horiek guztiak legez kanpo daudela eta haien kontra jardun behar dela herritarren eskubideak babesteko.

Auzitegi Nagusiak jurisprudentzia ezarri duenez, EFEOn lanean jarraitzen dugu gure helburua lortzeko: administrazio publikoek legea bete dezaten lortzea. Indarrean dagoen legedia betetzeko, herritarrak babestea erraz lortu beharko litzatekeen arrazoizko eta oinarrizko helburua da; baina errealitatea oso bestelakoa da. Erakunde horiek legea bete dezaten aurre egin behar diegun erresistentzia eta arazoak egundokoak dira. EFEOk irmo jarraitzen du eta ez dugu amore emango gure helburua lortu arte. Aurrera egingo dugu eta espero dugu, egoera hau gorabehera, hemendik gutxira berri hobeak eman ahal izatea.

# aurkibidea


**3** editoriala
**6** berriak
**22** beste jarduerak
**26** artikuloak
**32** aholkularitza juridikoa
**34** iragarkiak
**38** elkargokide



Elkargokideei emateko dohainezko alea

**Lehendakaritza eta Zuzendaritza**
Iban Arrien Celaya
**Coordinación Koordinazioa:**
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
**Gauzatzea eta Maketazioa**
J&J Creativos
**Argazkigintza**
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
**Argitalpena**
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
**Hiruhilabeteko argitalpena**



**Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe. Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.**

# EFEOren Batzar Nagusia

## 2025eko aurrekontuak aho batez onestea, elkargoaren kuotak nabarmen murriztuta

Joan den abenduaren 14an, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoaren 2024 ekitaldiko Batzar Nagusia egin zen Vitoria-Gasteizko Europa Jauregiko Barandiaran aretoan.

Aurreko akta onetsi ondoren, Iban Arrien EFEOko presidenteak lanbidearen egungo egoeraren errepasoa egin zuen.

Besteak beste, Euskadin Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Legea onetsi berri dela nabarmendu zuen, Estatuan fisioterapeuten eskumenak gehien indartzen dituen araudia.

Era berean, **Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan Lehen Mailako Arretan eta Osasun Komunitarioan** egiten ari den lana landu zuen; ildo horretan, Lehen Mailako Arretako Zuzendaritza berriarekin lan bilera bat egiteko eskaera iragarri zuen, Lehen Mailako Arretaren eta Osasun Komunitarioaren garapenean aurrera egiten jarraitzeko, aurreko Zuzendaritzak bultzatutako ekimenei jarraipena emateko eta horiek indartzeko. Gainera, informazioa eman zuen Lehen Mailako Arretako eta Osasun Komunitarioko Batzorde espezifiko bat sortzeari buruz, eta proiektu komun berritzailea eta efizientea diseinatzea du helburu, kolektiboaren inplikazioa indartuko duena.

Presidentearen esku hartzearekin amaitzeko, Elkargoa fisioterapiaren interesen alde egiten ari den lanak azaldu ziren.

- Intrusismoaren aurkako borroka
- Aurretiazko batzarretan sortutako proposamenak aktibatzea, hala nola **Elkargoaren kuotak murriztea**.
- EFEOk Euskadiko Osasun Ituna sortzeko bileretan parte hartzea.






### Batzordeen lana

Leire Peña Gobernu Batzarreko idazkariak elkargoaren Administrazioak egindako jardueren laburpen bat aurkeztu zuen; gorantz doan arloa da, erroldatutako 3.500 profesional baino gehiagori arreta integraleko zerbitzua eskaintzen baitie.

Edorta Ansoleagak, Elkargoko Intrusismo Batzordeko arduradun eta Lege Aholkularitzako bozeramaileak, lanbidearen defentsan artatutako jarduera, proiektu eta zerbitzu nagusien txostena azaldu zuen. Ildo horretan, Auzitegi Gorenaren azaroaren 3ko 1310/2021 Epaiari dagokionez, batzorde honek erakunde eskudunei jarritako dozenaka salaketak nabarmendu zituen.

Komunikazioaren arloan, Borja Salcedok, Elkargoaren Komunikazio, Publizitate eta Protokolo Batzordeko bozeramaileak, 2025erako Komunikazio Plan Estrategikoa aurkeztu zuen, kudeaketa sistema berri baten ezarpena azpimarratuta.

Era berean, Fernando Lázarok, Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko kideak, 2025erako prestakuntza proposamenak xehatu zituen, inkesta baten bidez jasotako kezketatik abiatuta. Amaitzeko, Ane Arbillagak 2025erako Ikerketarako Laguntzen programa azaldu zuen, Elkargoak fisioterapiaren garapen zientifikoarekin duen konpromiso irmoa azpimarratuta.

Menpekotasun, Desgaitasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordetik, Asier Arrizabalaga Elkargoko presidenteordeak modu telematikoan aurkeztu zuen 2025erako ibilbide orria, hainbat arlotan ekintza espezifikoak jasotzen dituena, hala nola onkologia, osasun mentala, anputazioak, etab.

Azkenik, Edorta Ansolegak hitza hartu zuen berriro, Kirol, Kirol Egokitu eta Barneratzailearen Batzordeko jarduera garrantzitsuenen berri emateko.

### Aurrekontuak onestea eta kuotak murriztea

Batzarrari amaiera emateko, Edurne Andueza Elkargoko diruzainak aurreko bileretan elkargokideek iradokitako hainbat hobekuntza aplikatu zirela adierazi zuen, besteak beste:

- Diruzaintzarekin zerikusia duten gaietarako posta zuzena sortzea.
- Errolda egin baino lehen aurrekontuak bidaltzea, azter daitezen.
- Elkargoaren kuotak berrikustea eta nabarmen murriztea 2025ari begira.

Gainera, Elkargoaren aurrekontuak aurkeztu dira 2025erako, eta aho batez onetsi dira.

*Komunikazio Batzordea*



# EFEOren Urteko I. Ospakizuna Donostiako Aquariumean

Joan den azaroan, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak EFEOren Urteko Sarien I. edizioa egin zuen Donostian. Aurretik antolatutako Fisioterapiako Euskadi Sarien eboluzioa da.

Sari horiek fisioterapia sektore sanitarioko funtsezko diziplina gisa ikusarazten eta garatzen laguntzen dutenen lana aintzatesten dute. Zeremonian sektoreko ordezkari nabarmenek eta epaimahai profesional batek parte hartu zuten, Elkargoa buru zutela.

Ekitaldiaren hasieran 2024ko ikerketa-laguntzak eman ziren, EFEOk ikerketarekin duen konpromisoa adierazteko, Fisioterapiak aurrera egiteko oinarrizko zutabea baita.

Hauek izan ziren saritutako proiektuak: Olalla Ondarraren lana, emakume mastektomizatuek duten diskriminazio arriskuari buruzkoa; Ander Cervantesen azterketa, errealitate birtualari eta minaren kontrolari buruzkoa; eta Xabat Casadoren proiektua, min zerbikobrakiala duten pazienteetan eskuzko fisioterapiari erantzuteko profil somatosentsorialen bidezko sailkapenaren predikzio balioari buruzkoa.

Halaber, Elkartasun Proiektuen beka eman zitzaion Itsaso Olasagastiri. Senegalen FisiosMundirekin batera egindako boluntariotza laneko gastuak ordaintzeko erabiliko du dirua.

## Sarituak

Lehenengo edizioan, epaimahaiak hiru kategoria nagusitan banatu zituen sariak, fisioterapiaren hainbat arlotan: komunikazio eta sentsibilizazio soziala zein lankidetza instituzionala eta lanbide bikaintasuna, besteak beste.

Fisioterapiari buruzko komunikazio lan onenean diziplinak duen garrantzia hedatzeko eta gizartea horren inguruan sentsibilizatzearen garrantzia aintzatesten da. Saria ETB2ko Quédate programak lortu zuen fisioterapian bizi den intrusismo sanitarioari buruzko erreportajeagatik; lanak praktika horrek osasun publikoan izan ditzakeen arriskuak agerian jartzen ditu. Roberto Montalvillok, programako zuzendariordeak, taldearen izenean jaso zuen saria.

FisioLagun saria: sari horrek fisioterapiaren arlotik kanpo dauden pertsona eta erakundeen arteko lankidetza aintzatesten du. Olarainek jaso zuen saria, Pediatriako Fisioterapia Onkologikoko I. Jardunaldia antolatzeko emandako laguntzagatik, ekitaldia egiteko instalazioak eta baliabideak eskaini zituelako. Idurre Altuna Olaraingo zuzendariak jaso zuen saria erakundearen izenean.

Urteko fisioterapeutaren sariak fisioterapiaren arloan ikerketa, irakaskuntza edo aurrerapen praktikoan izandako lorpenengatik nabarmendu den profesional bat aintzatesten du. Edizio honetan, saria Miguel Muñoz-Cruzado y Barba doktoreari, Osasun Mentaleko Fisioterapeuten Espainiako Erakundeko (AEF SM) presidenteari, eman zitzaion, Osasun Sistema Nazionaleko Osasun Mentalaren Estrategian fisioterapia integratzeko egindako lanagatik. Haren lana funtsezkoa izan da fisioterapia osasun mentalaren esparruan kokatzeko 2022-2026 aldirako, osasun mentalaren prebentzio eta tratamenduetara bideratutako programen garapenean fisioterapeutak barne hartzea bultzatuz.

## Omenaldiak eta esker on bereziak

Ekitaldian omenaldi berezia egin zitzaien fisioterapeuta erretiratuei, eta haien ibilbidea eta ekarpena nabarmendu zen. Bereziki, María Carmen Fernández Calleja aintzatetsi zen, arlo publikoan ibilbide luzea egin baitu Madrilgo eta Vitoria-Gasteizko ospitaleetan, eta arrasto esanguratsua utzi du sektorean.

**Lanbide ibilbidearen sari berezia**
Arantzazuko Gure Amaren Ospitaleko errehabilitazio taldeak jaso zuen. 1973an sortu zen errehabilitazio zerbitzu ezagun hori, eta aitzindaria izan da anbulatorioko pazienteei eta ospitaleratuei emandako arreta integralarengatik eta fisioterapeuten prestakuntza etengabearekin duen konpromiso irmoagatik.

Jatorriz Arantzazu eraikinean zegoen, baina 2000. urtean Toraxeko egungo eraikinera lekualdatu zuten. Azpiegitura aurreratua du, honako arlo hauek barne hartzen dituena: terapia okupazionala, hidroterapia, elektroterapia, gimnasioa, eta bulego espezifikoak Eskuzko Drainatze Linfatikorako (EDL), neurologiarako eta bizkarrerako gimnasia programetarako.

1985ean, ospitaleak Arantzazu Ospitalea izena hartu zuen, eta Osakidetzaren sareko kide bihurtu zen. Gaur egun, Donostia Ospitalea izenarekin, erreferente izaten jarraitzen du errehabilitazioaren eta fisioterapiaren esparruan.

Talde horren ordezkari gisa, honako hauek bertaratu ziren ekitaldira: Garbiñe Aizpurua, Laura Izaguirre Hortelano, Belén Ubierna, Beatriz Aparicio, Carmen Urdapilleta, Marisa Pérez Mallaina, Loly Peón, Ana Mari González, Maite Gómez Zapiain, Francisco Goicoechea, Idoia Sukia, María Jesús Echaniz, Mercedes Echeverría eta Miren Korpion. Saria jaso zuten zerbitzu osoaren izenean.

*Komunikazio Batzordea*





Ainhoa García kazetaria
izan zen zeremonia-maistra




Asier Arrizabalaga, elkargoko presidenteordea,
sarrera-hitzaldia ematen









Ikerkuntzarako
Laguntzak 2024






Fisioterapiari buruzko Komunikazio
proposamen onena
QUÉDATE - EITB2



FISIOLAGUN saria
Olarain




Urteko Fisioterapeuta
D. Miguel Muñoz-Cruzado y Barba



Erretiratuen
Omenaldia












Ibilbide Profesionalari sari Berezia
Servicio Rehabilitación del Hospital
Nuestra Señora de Aránzazu 1973









Dantza ikuskizunak
zeremonian zehar





# Lunbalgiaren prebentzioa eta tratamendua

## Espainian, lunbalgiak hamahiru pertsonatik bati eragiten dio

1996. urtetik, irailaren 8an **Fisioterapiaren Mundu Eguna** ospatzen da, bat etorriz **World Confederation for Physical Therapy (WCPT)** erakundearen sorrerarekin, mundu osoan dauden 600.000 fisioterapeutatik gora biltzen dituena.

Testuinguru horretan, irailaren 19an, **Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU)** lankidetzan, aurrez aurreko eta doako jardunaldia antolatu zuen Bilbon lunbalgiari buruz, afekzio prebalente eta ahulgarrienetako bat baita.

### Lunbalgia, desgaitasunaren kausa nagusia munduan

Kalkuluen arabera, Espainian, lunbalgiak hamahiru pertsonatik bati eragiten dio. Gure bizitzaren uneren batean, ia denok izango dugu gerriko mina. Baina, zorionez, gutxi batzuei besterik ez zaie min hori kronifikatzen, hiru hilabetetik gora.

Gerriko mineko kasuen % 90 ez dira berariazkoak. Horrek esan nahi du ezin zaiola mina berariazko egitura bati egotzi, hala nola giltzadura bati, muskulu bati, lotailu bati edo disko bati; eta, era berean, ez dute loturarik azpian dagoen gaixotasun larri batekin. Askotan, gerriko mina zenbait faktoreren konbinazioaren ondorioa da, eta irudi bidezko teknika aurreratuenek ere —hala nola erradiografia edo erresonantzia magnetikoa— ezin dute kausa argirik identifikatu kasu kroniko gehienetan.

Ebidentzia zientifikoak erakusten du Fisioterapiak kostu-efektibitate handia duela lunbalgiaren —mundu osoan prebalenteena den eta etengabe areagotzen ari den afekzio osteoartikularra— prebentzioan eta tratamenduan. Gainera, desgaitasunaren kausa nagusia da, eta karga ekonomiko handia ere bada gizartearentzat. Hori dela eta, osasun publikoko mundu-mailako problematzat hartu behar da, eta erantzun egokia eman behar zaio.







Lunbalgia duten pazienteen tratamenduaren oinarrietako bat aktibo egotea eta eguneroko jarduera garrantzitsuekin aurrera jarraitzea da, baita ariketa fisikoarekin ere. Ariketa fisikoa Fisioterapiako profesionalek preskribatu behar dute, eta pazientearen gaitasunera egokitutakoa izan behar da, atsedenaren eta jardueraren arteko oreka lortzeko. Idealena da ariketa-programa pertsonalizatu bat diseinatzea muskulatura indartzeko, eta erresistentzia, mugikortasuna eta ariketa maila hobetzeko; eta, aldi berean, gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzeko.

### Ebidentzian oinarritutako egitaraua

Aurrekari horiek kontuan izanda, erakundeak askotariko ikuspegi terapeutikoak barne hartzen zituen egitaraua diseinatu zuen jardunaldirako.

Hasteko, Ion Laskurain doktoreak (Fisioterapian doktoratua King´s College Londonen) pazientearen “fonotipatua”ren garrantziari buruz hitz egin zuen *Minaren mekanismoan oinarritutako gerriko minaren tratamendua* izeneko hitzaldian. “Ez da soilik terapiarik onena garatu behar; identifikatu behar dugu zer paziente motak jasoko lukeen terapia horren onura. Komeni da pazienteak azpisailkatzea emaitzarik onenak lortzeko”, azpimarratu zuen.

Ondoren, Manu Álvarez fisioterapeutak gerriko min kronikoan eta horren tratamendu terapeutikoan eragiten duten faktoreetan sakondu zuen. *Gerriko min kronikoa abordatzeko gakoak: gaitasun funtzionala eta aliantza terapeutikoa* izeneko hitzaldian, hauen guztien garrantzia nabarmendu nahi izan zuen, elementu gakoak baitira hizpide dugun laguntza-prozesu konplexu eta zoragarri honetan: enpatia, negoziazioa, informazio egokia, konpromisoa, konfiantza, itxaropenen kudeaketa eta hizkuntzaren egokitzapena.

Jardunaldiari amaiera emateko, Natalia Wiereszen fisioterapeutak, Pilates metodoan eta ariketan adituak eta *Pilates. Muévete Mejor, Previene Lesiones, Perfecciona Tu Entrenamiento* liburuaren egileak, *Ariketa terapeutikoa, mugimenduaren kontrola* izeneko hitzaldi bikaina eskaini zuen, lunbalgiaren prebentzioan eta tratamenduan Pilates metodoak dituen onuren berri emateko.

***Komunikazio Batzordea***



# Pediatriako Fisioterapia Onkologikoko I. Jardunaldia Donostian

Ekitaldian bertako zein nazioarteko adituak bildu ziren minbizia duten haurren tratamenduaren eta errehabilitazioaren esparruko azken aurrerapenak partekatzeko

Urrian, Alberto Iglesias auditorioan (Olarain, Donostia), **Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak Pediatriako Fisioterapia Onkologikoko I. Jardunaldia** antolatu zuen, **Pediatriako Fisioterapiaren Espainiako Elkartearen (SEFIP)** abal zientifikoarekin. Jardunaldia fisioterapeutei zuzenduta zegoen, eta haren helburu nagusia zen profesionalen talde horrek onkologia pediatrikoko diziplina anitzeko taldean duen rola indartzea; eta, horretarako, ezagutza-trukea eta sinergien sorkuntza sustatzea, tratamenduak optimizatzeko eta terapiak paziente bakoitzaren beharretara egokitzeko.

## Ekitaldi gakoa haurren fisioterapia onkologikoaren esparruan

Haur eta gazteen minbizia adingabeen gaixotasunagatiko heriotzaren kausa nagusia da estatuan, eta hauek dira patologia nagusiak: leuzemiak, linfomak, nerbio-sistema zentraleko tumoreak eta tumore solidoak. Testuinguru horretan, fisioterapiak ezinbesteko rola du haur horien arreta integralean, gaixotasunaren eta tratamenduen ondoriozko gabezia fisikoak arintzen laguntzen baitu eta bizi-kalitatea eta etorkizuneko garapena hobetzen baititu.







Horiek horrela, jardunaldiaren helburu nagusia zen profesionalen talde horrek onkologia pediatrikoko diziplina anitzeko taldean duen rola finkatzea; eta, horretarako, ezagutza-trukea eta sinergien sorkuntza sustatzea, tratamenduak optimizatzea errazteko eta terapiak paziente bakoitzaren beharretara egokitzeko.

## Egitaraua eta hizlari nabarmenak

Jardunaldia Donostiako alkate **Eneko Goia jaunak** inauguratu zuen, eta jarduera akademiko eta profesional biziko eguna izan zen.

***Haurrentzako Onkologiarako hurbilketa*** izeneko lehenengo blokean, lehen hitzaldia **Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko** Hematologia eta Onkologia Pediatrikoko Unitateko Miguel García doktoreak eman zuen, eta onkologia pediatrikorako hurbilketa egin zuen. Ondoren, **Verwaaijen doktorea**, Herbehereetako **Princess Maxima Centerreko** fisioterapeuta onkologikoa, telematikoki konektatu zen leuzemia pediatrikoaren tratamenduan haurrek bizi duten zaurgarritasun fisikoari buruz hitz egiteko.

Atsedenaldi baten ondoren, jardunaldiaren bigarren blokeari hasiera eman zitzaion, zeinetan haurren patologia onkologiko batzuekin lotutako kasu klinikoak azaldu baitzituzten:

- **Gemma Calafek, Bartzelonako Sant Joan Ospitaleko** RHB zerbitzuko fisioterapeutak, tumore solidoetako fisioterapiari eta kasu zehatz bateko eskuzko terapiari buruz hitz egin zuen.
- **Denys Santa Marinak**, *HIIT entrenamendua paziente onkologiko pediatrikoan* ikerketaren ikertzaile nagusiak, haurren patologia hematologikoko abordatze fisioterapeutikoa azaldu zuen.
- **Sebastián Galasek, Madrilgo Niño Jesús Ospitaleko** haurrentzako onkologiako fisioterapeuta eta ikertzaileak, Garuneko Tumore Pediatrikoen Unitateko bere esperientzia partekatu zuen.

Beste atsedenalditxo bat egin zen horren ostean, bertaratuek elkarren artean konektatzeko aukera izan zezaten; eta, ondoren, hirugarren blokea abiarazi zen, **esfortzua eta ariketa terapeutikoa berrentrenatzeari** buruzkoa. Hauek izan ziren blokeko parte-hartzaileak:

- **Manuel Trinidadek**, haur eta helduen patologia kroniko eta onkologikoetan ariketa terapeutikoa preskribatzearen arloko ikertzaile adituak, gaixotasun onkohematologikoak dituzten haur eta gazteen ariketa fisikoari buruzko hitzaldia eskaini zuen.
- Rubén Menéndezek eta Araceli Gosendek, Botón Elkarteko fisioterapeuta boluntarioek *Haurren minbiziaren abentura; bidaiari orok ezagutu behar dituen aholkuak* izeneko hitzaldia eskaini zuten.

Eta, azken blokea, **zainketa aringarriei eta dolu profesionalari** buruzkoa izan zen; eta hauek izan ziren hizlariak:

- **Borja Recuencok, Madrilgo Haurrentzako Onkologia Elkarteko** fisioterapeuta onkologiko pediatrikoak zainketa aringarri onkopediatrikoetan fisioterapiak duen rola azaldu zuen.
- **Ángels Poncek**, gizarte-langile eta familiaren arloko eta doluan espezializatutako terapeutak, haurrak diren paziente onkologikoekin lan egitean profesionalak bizi duen dolu-prozesuari buruz hitz egin zuen.

***Komunikazio Batzordea***


EL SÍMBOLO DE LA FISIOTERAPIA
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco


OLARAIN
I JORNADA DE FISIOTERAPIA ONCOLÓGICA EN PEDIATRÍA
Euskadiko Fisioterapeut Elkargo Ofizi
Colegio Oficial de Fisioterapeutas














San Seb
I JORNADA DE FISIOTERAPIA ONCOLÓGICA EN PEDIATRÍA
I JORNADA DE FISIOTERAPIA ONCOLÓGICA EN PEDIATRÍA


BELCA



# Lesiorik gabe korrika egiteko osasunari eta errendimenduari buruzko I. jardunaldia

## Atleta erdigunean jartzen duen diziplinaz gaindiko laneko paradigma berria

Azaroaren 27an, Donostiako Kirol Etxean, “**Korrikalarien Osasunari eta Errendimenduari buruzko I. Jardunaldia**” egin zen. Ekitaldian, osasunaren zein kirolaren arloko profesionalak elkartu ziren, hazkuntza etengabean dagoen diziplina horretan errendimendua optimizatzeko eta lesioak prebenitzeko gako tresnak partekatzeko.

Jardunaldian zehar, funtsezko gaiak jorratu zituzten: lasterketa-teknikaren biomekanika, adinaren ondoriozko aldaketa fisiologikoetara egokitzeko estrategiak, eta fisioterapeuten, podologoen eta kirolaren beste profesional batzuen arteko lankidetzaren garrantzia, korrikalarien osasuna eta errendimendua optimizatzeko, bereziki 40 urtetik gorako kirolarien kasuan.

### Diziplinaz gaindiko ikuspegia

Jardunaldian korrikalariaren ongizatea eta lesioen prebentzioa lortzeko ikuspegi integral eta diziplina anitzekoaren garrantzia azpimarratu zen. Ildo horretan, **Borja Salcedok**, ergonomian eta talka-uhinetan adituak, diziplinaz gaindiko lanaren garrantzia nabarmendu nahi izan zuen: “Diziplinaz gaindiko ikuspegian medikuak, fisioterapeutak eta podologoak lankidetza estuan arituko gara prestatzaile fisikoekin eta kirolaren arloko beste profesional batzuekin, ikuspegi hori ezinbestekoa baita ariketa eta errekuperazio efizientea sustatzeko”.









Salcedok azpimarratu zuen diagnostiko zehatz bat egiteko, fisikotik haratagoko faktoreak ere kontuan izan behar direla, hala nola estresa, elikadura eta kirol-ohiturak: “Pazientearen dimentsio psikosozial osoa ulertu behar dugu haren osasunari osotasunean heltzeko”, baieztatu zuen.

Beste hizlari nabarmenetako bat **Sergio Román** izan zen, kirolaren arloko podologoa eta beheko gorputz-adarreko biomekanikako aditua. Hark eskainitako hitzaldia biomekanikak lesioak prebenitzeko eta errendimendua hobetzeko duen garrantziari buruzkoa izan zen. Románen arabera, oinkadaren eta mugimenduaren analisi xehatua egiteak aukera ematen die korrikalariei beren lasterketa-teknika optimizatzeko, oinetako egokiak hautatzeko eta ohiko lesioak prebenitzeko (tendinopatiak edo hanketako arazo muskularrak, esaterako).




***Komunikazio Batzordea***



# Elkagoaren beste jarduerak





Imanol Pradales lehendakari jaunarekin eta Alberto Martínez Osasuneko sailburuarekin elkartu ginen Ajuria Enean, erizainen, farmazialarien eta medikuen elkargo profesionalekin batera. Etorkizuneko “Euskadiko Osasun Ituna”ren lehenengo lan-harremana Euskadin





Euskadiko Osasun Itunaren bileretan parte hartzea



Zorabiatutako pazientearekin lan egitea jardunbide klinikoan



Fisioterapiako Kudeatzaileen II. Kongresuan parte hartzen



Elkargoaren parte-hartzea Bizkaiko Osasun Elkargo Profesionalen Foroaren 40. bileran “Osasun-arretaren ikuspegi integralagoa sustatzen”



Galiziako Fisioterapeuten Elkargo Ofizialarekin batera haren 25. urteurrenean.



Pilates metodoa, Fisioterapiako tresna terapeutikoa. Zenbait patologiatara eta tratamenduaren etapetara egokitzea



Osasun Mentaleko Fisioterapia




Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko kideekin, haren urteko ospakizunean.



Indarra baloratzea eta dosifikatzea fisioterapeutentzat



Neuroendekapenezko gaixotasunetako Fisioterapia




Hazstenen 10. urteurreneko galan parte hartzea



EFEOren eta Agadelpriseren arteko lankidetza-hitzarmena




EFEOko fisioterapeuta, ikertzaile eta batzordekide Ane Arbillaga Etxarriren parte hartzea Kanarietako Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak antolatutako Kronikotasunari aktiboki aurre egitea IV. Nazioarteko Kongresuan, “Motibatzeko elkarrizketa, oinarri gisa" hitzaldiarekin



EFEOren eta Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialaren arteko lankidetza-hitzarmena




EFEOren eta Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialaren arteko lankidetza-hitzarmena



EFEKNaren Ohiko Batzar Nagusia

# Nazioarteko elkarlanerako proiektua Senegalen: Fisios Mundi

## Saria 2024ko Fisioterapiako Proiektu Solidario Onenei

Itsaso Olasagasti Ruiz de Gauna - Elkargokidea 2.061 EFEO



Tako-mayo kanpamentua eta atellier-a prestakuntza egiten ari diren neskekin.

Itsaso Olasagasti Ruiz de Gauna naiz eta Fisios Mundi GKEko presidentea naiz. Artikulu hau idatzi dut Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak emandako dirulaguntzagatik eskerrak emateko, uda honetan Senegalen lehenengo esku-hartzea egin ahal izateko.

2024ko ekainean Inspira Salud eta Alpicat solidari GKE-ekin lankidetza-hitzarmen bat sinatzeko aukera izan genuen, País Bassari eskualdean Senegaleko Afia Thiabecare elkartearekin Senegalen bertan hasi den proiektuan parte hartzeko. Senegaleko elkarte horrek joskintzako tailerreko eskola txiki bat kudeatzen du, urtebetez hurbileko herrietako nerabeak prestatzeko, norberaren autonomia lortzea ahalbidetuko dieten gaitasun profesionalak lor ditzaten.



Lehen mailako arretako kontsultategia Afia 1 herrian (Dindefelo).

Esku-hartzearen helburu nagusia izan da Kedougou eta Dindefelloren eremuan (Senegal) pazienteak artatzen laguntzea, baita Senegaleko biztanleriari eta osasun-profesionalei zuzendutako osasun-zientziari buruzko prestakuntza-jarduerak garatzen ere, tokiko pertsonen osasuna eta ongizatea hobetze aldera.

Lehenengo bidaia honetan proiektuaren balioespena egin dugu bertan, tokiko beharretan oinarritutako lankidetza-proposamena egiteko, tokiko langileen prestakuntzara bideratuta. Egonaldian, hainbat osasun-arreta zentroak ezagutu ahal ditugu aurrez aurre; horietan, bertako langileen bidez, biztanleriak dituen patologia ohikoenak eta alterazioak ere ezagutu ahal izan ditugu, esku-hartze zehatzagoa proposatu ahal izateko.



Bisita gidatua Kedouguko lehen mailako arreta zentrora.



Hainbat haurren balorazioa beren etxeetan, Dindefelon.

Horretaz gain, eskualdeko osasun-zerbitzuetako arduradunekin bildu ahal izan gara, osasun sistema publikoaren funtzionamendua ulertu ahal izateko, eta Kedouguko erreferentziazko ospitalea bisitatu dugu; bertan mota guztietako pazienteak artatzen dira, baina bereziki amatasun eta pediatriako zerbitzuak ematen dira.





Ospitalearen helburua da berariazko prestakuntzako sarea sortu ahal izatea, kasurik konplexuenak Dakarreraino bideratu behar izan gabe kasu gehiago artatu ahal izateko, bi hirien arteko errepidezko bidaia 13 ordu baino gehiagokoa baita. Gaur egun, harremanetan jarraitzen dugu bertako langileekin, hurrengo urterako beraientzat interesgarriak diren prestakuntzak programatu ahal izateko.

Gure bidaian, osasuneko hainbat arazo zituzten pazienteak artatu genituen, arreta berezia emanez patologia neurologikodun kasu pediatrikoei eta min muskuloeskeletikoa duten helduei. Etxeko bisitetan, pertsonen balorazioa egiten genuen, eta egoera fisikoa eta funtzionalitatea hobetzen laguntzeko tratamendu eta jarraipenerako ereduak ematen saiatu ginen.

Munduko beste toki askotan bezala, pazienteek botikak eta esku-hartze guztiak ordaindu behar dituzte, baita esku-hartze txikiak direnean. Erronka hori are handiagoa da komunitate horietan, non familien baliabide ekonomikoen eskasiak nabarmen murrizten duen oinarrizko osasun-arreta zerbitzuetarako sarbidea.

Gure bidaiaren amaieran, egun batzuk igaro genituen Dakarren, eta Philliperekin egoteko aukera




*Bisita Dakarreko umezurztegira, bertako fisioterapeuta Phillipperen eskutik.*

izan genuen; Philipe hiriko umezurztegi publikoan lan egiten duen fisioterapeuta da. Berari esker, fisioterapeutek Senegalek duten prestakuntza ezagutu ahal izan genuen. Gaur egun, herrialde osoan Fisioterapiako unibertsitate bakarra dago, eta Dakarren dago.

Egun, neurologiaren arloan jende espezializatu gutxi dago, eta Phillipe neuropediatrian gaituta dagoen pertsona gutxietako bat da, Madrilen Bobathen espezializazioa egiteko beka lortu baitzuen. Aipatu zigun guztira 300 fisio inguru daudela Senegalen (1 30.000 biztanle bakoitzeko), eta gehienek kirol-arloan egiten dutela lan, lanbide-irteera handiagoa eta baldintza hobeak izan ohi dituen arloa baita.

Philliperi esker, umezurztegiko instalazioak eta langileak ere ezagutu ahal izan genituen. Bertan 2 urtetik beherako 80 haur inguru dituzte; gehienak jatorrizko familiekin itzultzen badira, edo, aukera hori ez badago, beste familia batzuek adoptatzen dituzte. Umezurztegia monjek kudeatzen dute, eta Amigos de la pouponniere GKEren bidez boluntarioen laguntza jasotzen dute.

Senegalen egindako 17 eguneko egonaldia birpasatu ostean, hain egun gutxitan jaso genuen informazio guztiaz ohartu naiz, baita hainbeste pertsonek hau guztia posiblea izan zedin egin zuten ahaleginaz ere. Landako balorazio-bidaiak zailak dira beti, ez baitugu errutina finkaturik, eta lan-bolumena handia da. Bidai horietan, garrantzitsuena informazioan ondo blaitzea da eta, bueltan, zure taldearekin eta guztia ondo barneratu ondoren, lanari ekitea, zure uste osoa duen proiektu hori errealitate bihurtzeko.

Neure izenean eta Fisios Mundiren izenean eskerrak eman nahi ditut bihotz-bihotzez proiektu honetan parte hartu duten erakunde eta pertsona guztien laguntzagatik, uste baitugu ezinbestekoa dela GKE txiki guztiok bat egitea helburu amankomuna lortzeko.

Gainera, Dindefelo eskualdeari bere tokia eman nahiko nioke; mendien eta mugen artean dagoen bazter txikia izan arren, emateko asko du.

Eskerrik asko = Jërëjëf

Edozer behar baduzue, gurekin harremanetan jar zaitezkete webgune honetan: www.fisiosmundi.org

***Itsaso Olasagasti Ruiz de Gauna***
***Elkargokidea 2.061***










# 4 Bikainak: Fisiorunnerrak 2024ko WOP Challenge-n

Andrea Arnaiz García - Elkargokidea 3.755 EFEO

Asko gustatu zitzaigun ekainaren 6an EFEOren mezu bat jasotzea. Bertan, deskribatzen ziguten WOP Fundazioa (The Walk On Proyect) Elkargoarekin harremanetan jarri zela txandakako eta taldekako kirol-ekitaldian parte hartzeko; ibilbide aparta osatzen du Bizkaian zehar.

Lau fisioterapeuta abiatu ginen taldeko jarduera bat egiteko eta elkar ezagutzeko, beste fisio elkargokide batzuekin harremanak sortzeko; izan ere, esparru akademikotik kanpo ez bada, zaila da elkartzea.

Izugarri gustatu zaigu esperientzia hau; abiadura eta erresistentzia probatzen dituen lasterketa bat baino gehiago, taldean lan egiteko eta modu eﬁzientean koordinatzeko gaitasuna probatzeko aukera da.

5 etapa egin genituen, eta guztira 50km egin genituen 4 kidek. Honela banatu ziren:

- 1. etapa: 08:30ean hasi ginen Portu Zaharrean Gallartaraino, Maiteren eskutik.
- 2. etapa: lekukoa (geolokalizatzailea, kasu honetan) gure lankide Corari eman zion, eta Gallartatik Galdameserainoko distantzia egin zuen.
- 3. etapa: hurrengoa Keivan izan zen, eta igoera eta jaitsiera askoren ostean Galdamesetik Sodupera iristea lortu zuen.
- 4. etapa: Keivan Sodupera iritsi zenean, bidea eman zion Andreari, “azken etapa” Zorrotzaraino bakarrik egiteko.
- 5. etapa: gainerako fisioterapeutek ia 3km egin zituzten Andrearekin batera, Bilbon helmugara eskutik helduta sartzeko.

Txandakako lasterketa horiek beste korrikalariekin konektatzen laguntzen dute, eta “adiskidetasuna” sustatzen dute, eta, taldean lan egiteko eta koordinaziorako trebetasunak garatzeaz gain (bakarka oso zaila izango baitzen azken puntuetara iristea), motibazioa eta entrenamenduarekiko konpromisoa areagotzen dituzte.

Animatzen zaituztegu datorren urtean fisioterapeuta gehiagok bat egin dezaten erronkarekin... imajinatu paisaia zoragarri batean korrika egitea, lehen ezagutzen ez zenituen eremuak deskubritzea, zure aurpegian haizea eta zure taldekideen energia sentituz.

“Lekukoa” pasako dizun laguna hurbiltzen ikustearen emozioa, jartzeko eta aurrerantz ziztu bizian irtetearen antsietatea, taldearen arrakastarako urrats bakoitza garrantzitsua dela jakinda... deskribaezina da.

Asko gomendatzen dizuegu, running-aren esentziarekin konektatzen zaituen eta zerbait handiagoaren parte sentiarazten zaituen esperientzia baita!

***Andrea Arnaiz García***
***Elkargokidea 3.755***

# Fisios Mundi: Bolivian Fisioterapia pediatrikoa sustatzea

## Saria 2024ko Fisioterapiako Proiektu Solidario Onenei

Jennifer Martínez Cerezo - Elkargokidea 847 EFEO

Kaixo guztioi! Jenny naiz eta fisioterapeuta pediatrikoa naiz Vitoria-Gasteizko Arreta Goiztiarreko taldearen barruan.

Zorionekoa naiz, halaber, duela 5 urtetik hona Fisios Mundi GKEaren familiako kide izateagatik. GKE hori egunetik egunera lan egiten du fisioterapia munduko hainbat lekutan egoera ahulean dauden pertsonengana hurbildu ahal izateko, tokiko langileak trebatuz.

Izan ere, toki askotan, fisioterapiarako sarbidea ez ezik, gure lankide fisioterapeutek oso zaila dute prestakuntza ere jasotzea, esku hartzeko tresna espezifikoak eta kalitatezko irakaskuntza-edukia lortzeko.

Graduondoko prestakuntzan eta eguneratzean gehien inbertitzen duen lanbideetako bat gara, eta harro egoteko modukoa da ezagutzak areagotzeko gogoa bizirik mantentzea eta egunean egotea, ahalik eta tratamendu-kalitate onena emateko.

